



Obra Social "la Caixa"

MUSEO NACIONAL
CENTRO DE ARTE
REINA SOFIA




**Prensa-txostena
Gernika-Lumo**

2017ko urriaren 20tik 25era



"la Caixa" Gizarte Ekintzak eta Reina Sofía Museoak erakusketa gune berritzailea ekarri dute Gernikara Picassoren maisulanaren inguruko historiari buruz



Artista aparta. Une historiko erabakigarria. Pintura, norberaren eta jende askoren sentimenduak irudikatzen bitarteko hauta, eta pinturaren izugarritzko indarra museoaz harata jotzeko eta kalera ateratzeko. Pablo Ruíz Picassoren (1881-1973) *Guernica* (1937) zalantzarik gabe da XX. mendeko artearen lanik adierazgarrienetako bat. Picassok margolan bat margotzea onartu zuen, Espainiak Parisen 1937ko Nazioarteko Erakusketan jarri zuen pabilioian erakusteko. Eta artistak *Guernica* ondu zuen, Espainiako Bigarren Errepublikak eginiko enkarguari erantzuteko, Gerra Zibilaren erdi-erdian. Margolan gogoangarria da, bai haren historiarengatik, bai arteari nahiz politikari begira bere baitan biltzen dituen balio sinbolikoengatik, garai hartako eztabaiden laburpen baitira; gainera, arte modernoarentzat eredugarri izateaz landara, aipatu behar da sortu zen une hartan ere *Guernica* gerraren aurkako eta askatasunaren aldeko ikurtzat aitortu zela, eta balio horiek egun oraindik ere aitortzen zaizkio. Maisulan hau ondu zeneko 80. urtemugaren karira, "la Caixa" Gizarte Ekintzak eta Sofia Erregina Museoak *Picasso. Guernicaren bidaia* izenburuko erakusketa ekarri dute, hots, 200 metro koadroko formatu berritzaile ibiltarian bildua dagoen erakusketa, *Guernica* margolanaren historian sakontzeko, betiere lanak urteen joan-etorrian eginiko bidaiak eta haren erabilerak abiaburu hartuta.

Picasso. Guernicaren bidaia. Antolatzailea eta ekoizlea: "la Caixa" Gizarte Ekintza eta Reina Sofía Arte Zentroaren Museo Nazionala. ***Komisariotza:*** Rosario Peiró, Reina Sofía Arte Zentroaren Museo Nazionaleko Bilduma Alorreko zuzendaria, eta Rocio Robles, Pablo Picassorengan aditua den ikerlaria.

[@FundlaCaixa](#) [#GuernicaCaixaForum](#)



Gernika, 2017ko urriaren 20a. Gernika-Lumoko alkatea, José M. Gorroñok; Bizkaiko Ahalduen Nagusia, Unai Rementeriak; CaixaBank-en Euskadi eta Kantabriako lurralde zuzendari Juan Pedro Badiolak; "la Caixa" Banku Fundazioko Kultura Alorreko zuzendariak, Ignasi Mirók; Reina Sofia Arte Zentroaren Museo Nazionaleko Erakusketa Alorreko zuzendaria eta komisario, Rosario Peirok; UCM-ko Historia Arte Garaikidearen Alorreko irakasle elkartua eta komisario, Rocio Roblesek Picasso Guernica-ren bidaia erakusketari hasiera eman diote gaur.

Bere kultur programazioaren barruan, "la Caixa" Gizarte Ekintzak bereziki egiten dio arreta azken mendeko arteari. Izan ere, arte modernoaren eta garaikidearen gaineko erakusketen bidez, arte molde horrek egungo sentsibilitatean izan duen eragina erakutsi nahi du "la Caixa" Gizarte Ekintzak, eta nabarmendu, zer-nolako eginkizun garrantzitsuak izan duten XX. mendeko sortzaile bisual handiek guk mundua ikusteko dugun moduan. Xede hori gogoan, iragan mendeko pinturaren historiako izen handi batzuei eskainitako erakusketak antolatu ditu; Salvador Dalíri eta Andy Warholi, esate baterako.

Oraingo honetan, izen horiei Pablo Picasso erantsi zaie, *Guernica* lanaren 80. urtemugaren ospakizunaren karira. Horrela, "la Caixa" Gizarte Ekintzak eta Sofia Erregina Arte Zentroaren Museoak elkarrekin antolatutako, erakusketa-proiektu berri eta berritzaile ibiltari honek ibilbide bat eskainiko du, bisitariak XX. mendeko historian barna ibil daitezten, mende horretako lanik adierazgarrienetako baten eskutik. Erakusketa bi trailerren barruan ekoiztu da; biak batuta, 200 metro koadroko erakusketa gela bat osatzen dute. Erakusketa ibiltaria denez, Espainia guztian zehar ibiliko da datozen urteotan, eta horri esker, hango eta hemengo hirietara hurbilduko da margolan ikonikoaren historia.

XX. mendeko artelanik adierazgarrienetako baten bidaia luzea

Picasso. Guernicaren *bidaia* erakusketak Picassoren lanari buruzko ibilbide historiko bat egiteko aukera dakar, hura Parisen 1937an sortu zenetik 1992an Sofia Erregina Arte Zentroaren Museo Nazionalean behin betiko kokatu zen arte. Horri esker, bisitariak jakingo dute zer-nolako sorkuntza-prozesua gauzatu



Dora Maar. Picasso zutik Guernica lana ontzen Grands-Augustins-eko tailerlean © Sofia Erregina Museoa



Nota de prensa

zuen artista espainiar ospetsuak lana ontzeko, eta era berean, lanak gerraren kontra duen esanahia, eta zergatik ibili zen lana mundu zabalean, 40 urtetik gora.

Erakusketa gun e eta baliabideek garai hartako testuinguru historikoa darakutsate, eta *Guernica* lanaren garrantzia eta esanahia ulertzeko gakoak ere bai. Badira ikus-entzunezkoak, garai hartako argazki eta kartel erreproduzioak, eta agirien nahiz marrazkien faksimileak, guztiak ere jakingarriak XX. mendeko artistarik garrantzitsuenaren lanik adierazgarrienetako baten sorkuntzaren eta bidaien historia azaltzeko.

Picasso. *Guernicaren bidai*a erakusketa bost esparrutan dago banatua, lanaren ibilbidea haren fase guztietan azaltzeko. Era berean, Picassoren bizitzako une garrantzitsu batzuk erabakigarriak izan ziren *Guernica* sortzeko, eta horiek ere ageri dira. Gainera, "la Caixa" Gizarte Ekintzak hainbat ikus-entzunezko ekoiztu



Argazkia: *Guernica* gela © Rene BurriMagnum PhotosContacto

ditu *Guernica* lanaren historia eta haren eragina ulertzen laguntzeko. Rogelio López Cuenca artistaren ikus-entzunezko lana da nabarmentzekoa, bai eta bi ikus-entzunezko berri ere, *Guernicaren* testuinguru historikoaz, lanaren ezaugarri teknikoaz, margolana harat-honat eramateak eragindako kalteez eta huraxe zaharberritzeko lanez.

1937ko urtarrilean, margolan bat margotzeko enkargua eman zion Espainiako Bigarren Errepublikako Gobernuak Pablo Picassori Espainiako Pabilioirako, urte hartan Parisen egitekoa zen Nazioarteko Erakusketan erakuste aldera. Hasieran errezeloz bazebilen ere, Picassok enkargua onartu zuen, baina artean ere ez zen margotzen hasi. 1937ko apirilaren 26an, Espainiako Gerra Zibilean, indar alemanek eta italiarrek Gernika bonbardatu zuten altxatuen alde. Picassok prentsa grafikoaren bidez izan zuen Gernikako bonbardaketaren berri; L'Humanité eta Ce soir egunkarien bidez, zehazki. Irudiak eta gerra gertakariaren kontakizuna eragingarriak izan ziren harentzat, eta artistak behin betiko heldu zion Bigarren Errepublikako Gobernuak enkargaturiko lana egiteari. Picassok 5 astean ondu zuen *Guernica*, eta huraxe sortzeko prozesua ederki ageri da dokumentatua erakusketan Dora Maar argazkilariaren argazkien bidez; garai hartan, Picasso eta Dora Maar maitasun-harremanetan zebiltzan.



Picassok, beraz, *Guernica* ondu zuen, Espainiako Bigarren Errepublikako Gobernuak Gerra Zibilaren erdian egindako enkarguari erantzuteko; gerraren aurkako salaketa izan zen. Egoera politikoak eraginda, *Guernica* 1981era arte ez zen Espainiara iritsi. Berrogeita lau urtean, lana Europako eta Amerikako hainbat hiritan egon zen ikusgai: lehenik, Errepublikaren aldeko propaganda egiteko eta Gerra Zibileko errefuxiatuei laguntzeko. Gero, ordea, arte modernoaren kontakizuna eraikitzeko lan oinarrizko gisa eraman zen hona eta hara, eta ordena geopolitiko berri baten berreraikuntzako elementu gisa, Bigarren Mundu Gerraren ondotik.

Erakusketa gunegabe eta berritzailea

Picasso. *Guernicaren bidaia* erakusketarako, "la Caixa" Gizarte Ekintzak gunegabe eta berritzaile bat dauka, hots, UD 100 deritzona. Sistema horri esker, kamioi bateko trailerrean 100 metro koadroko erakusketa gunegabe muntatzen da; erdialdean, gainera, altuera 5,5 metrokoa da. Horrez gain, unitate zabalgarri bat baino gehiago lotu daitezke elkarrekin, eta ondorioa leku zabal-zabala da, 200 metro koadroko erakusketak egiteko modukoa.

Iraunkortasunaren arloa azpimarratu da bereziki; kontsumo energetikoa, zehazki. Izan ere, aire ganberaz osaturiko xafla bikoitzak erabili dira, eta kontzeptu horrek ez du batere zerikusirik karpeta eta halakoetan erabili ohi den olanarekin.

Gunegabe honen bidez, "la Caixa" Gizarte Ekintzak publiko zabalago baten artean zabaldu nahi du ezagutza kulturala, zientifikoa eta soziala. Erakusketa horiek hiriz hiri dabilta eta udalerriek lagatako tokietan jartzen dira, ahalik eta jende gehienarengana iristeko asmoz.



ERAKUSKETAREN ESPARRUAK

1- IZUA ETA MINA, PICASSORENTZAT ERAGINGARRI

Espainiako gerra zibila 1936ko uztailaren 18an piztu zen. Alemaniako Kondor Legioak Gernika bonbardatu zuen. Euskal herri horren bonbardaketa gerra hartako gertakaririk latzenetakoa izan zen: behin eta berriz bonbardatu zuten, esperimentazio moduan, eta ehun biktima baino gehiago eragin zituen. Berehalakoan, bonbardaketak sekulako oihartzuna izan zuen Errepublikako eta nazioarteko prentsan. Egunkariak emakume eta haurren irudi erdiragarritz bete ziren, herria errausturik ageri zen; prentsako lerroburuak laguntza oihuak bezalakoak ziren, errefuxiatuen drama gorria agerian utzita.

Picassok prentsa grafikoaren bidez izan zuen Gernikako bonbardaketaren berri; L'Humanité eta Ce soir egunkarien bidez, zehazki. Irudiak eta gerra gertakariaren kontakizuna eragingarriak izan ziren harentzat, eta artistak behin betiko heldu zion Bigarren Errepublikako Gobernuak enkargaturiko lana egiteari. Ideia nagusi baten inguruan egituratu ziren aspaldian zerraizkion gaiak —pintorea eta modeloa—: hots, izua eta mina indarkeria-erakustaldirik handienaren aurrean.

ARTISTA, TAILERRA, ENKARGUA

Picassok estudio bat hartu zuen errentan Parisko Grands-Augustins kalean, lantoki handiago bat izateko eta, horrela, enkargua betetzeko. Gernikaren bonbardaketaren ondotik, aldi berean hasi zituen lantzen bere lanaren motiboak hala marrazkietan eta paperezko konposizioetan nola mihise handian.

Berrogeita bost prestaketa-zirriborro ondu zituen, gaiak, irudiak (zezena, zaldia, haur hila duen ama, emakume burua negarretan, ezpata hautsia duen eskua) eta espazioaren definizioa biltzeko. Horretarako, hainbat teknika erabili zituen (arkatza, ikatz-marrazkia, gouache, olio). Bere mitologia pertsonalaren elementuetatik abiatuta (autorretratua minotauro gisa, zezenketetan hildako zaldia), Picassok tragediaren berezko alderdietara jo zuen, alegoria baliatuta: balio unibertsalak, denbora historikotik kanpo daudenak.

DORA MAARREN LEKUKOTASUNA

Picassok bost aste soilik behar izan zituen *Guernica* margotzeko. Picasso, garai hartan, Dora Maar (1907-1997) artistarekin zebilen maitasun-harremanean, eta emakumeak margolana egiteko fase guztien argazkiak atera zizkien bai marrazkiei bai mihiseari. Grands-Augustins kaleko estudioa toki txikia zen, eta leiho handiak zituen: oihala lurraren eta sabaiko habeen artean sartzen zen. Dora Maarren argazkiak, halaber, lagun batzuen bisitaren lekuko dira; André Breton idazlearen eta Jacqueline Lamba pintorearen bisitaren lekuko, adibidez.



Margolanaren konposizioak eskema piramidal eta orekatua du, eta irudiak lehen planoan daude bilduta, dena bertan gertatzen baita. Irudi estatikoak lanaren denboraz gaindiko izaera nabarmentzen du, eta antzerki-efektuak maisuki daude moldatuak.

ESPAINIAKO ERREPUBLIKA PARISKO NAZIOARTEKO ERAKUSKETAN

Parisko Exposition Internationale des Arts et Techniques dans la Vie Moderne erakusketa 1937ko maiatzaren 25ean zabaldu zen. Gerra aurreko giro tenkatu hartan, erakusketaren leloetako bat bakearen aldeko lana izan zen, bai eta herrien arteko elkar aditzea ere. Elkarrengandik metro gutxira, Sobiet Batasuneko eta Alemaniako pabilioiek ederki urratu zuten bakearen aldeko mezua: biak ere pabilioi neurrigabeak ziren eta, metaforikoki, munduko maparen gainean inposatzen ziren.

Arkitektura-mugimendu modernoaren printzipioei jarraiki, Josep Lluís Sert eta Luis Lacasa arkitektoek pabilioi xumea ideiatu zuten materialetan eta hiru solairuko eskalan: eraikin antimonumental bat. Josep Renauk, Arte Ederretako zuzendari nagusiak, programa guztia prestatu zuen, argazki-muntaketak ardatz hartuta; hura propagandarako tresna baliosa izan zen. Barrualdea hiru ardatzen gainean antolatuta zen: arte plastikoak, folklorea eta herri arteak, eta Errepublikaren gobernu programa eta lorpenak. Erakusketarako berriaz egindako lanen gai nagusia gerra izan zen, lan bana egiteko gonbidapena jaso baitzuten hainbat artistak, hala nola Pablo Picassok, Julio Gonzálezek eta Joan Mirók, hirurek ere nazioartean ospetsuak.

Guernica beheko solairuan jarri zuten, Alexander Calder artista amerikarraren *Fuente de Mercurio* lanaren aurrean. Patioa agora gisa erabili zen, hitzaldiak, film-emanaldiak, antzezpenak eta kontzertuak egiteko.

2- PROPAGANDA-TRESNA NAZIOARTEAN

Parisko erakusketa 1937ko azaroaren 35ean itxi ondoren, *Guernica* alde batetik bestera hasi zen mundu zabalean, artelana baitzen, baina propaganda politikorako tresna ere bai.

Lehen bidaia 1938ko udaberrian egin zuen, Eskandinaviara. Hura erakusketa ibiltaria zen, Picasso, Matisse, Braque eta Laurens pintoreen lanez osatua, Walter Halvorsen artista norvegiarrak antolatua, Paul Rosenberg galeristarekin batera. Itzuleran, margolana Picassori eman zitzaion, eta lanari erabilera artistikorik eta politikorik handiena ematea onartu zuen.

1938ko irailean, Espainiako Herriari Laguntzeko Batzorde Nazionalaren jardueren baitan (National Joint Committee for Spanish Relief), *Guernica* eta lanaren marrazkiak Ingalaterrara joan ziren. Picassok berak kanpaina parte hartu, eta margolana hainbat hiritan jarri zen ikusgai. Clement Attlee alderdi laboristako buruak *Guernica Pictures* by Picasso erakusketa Londresko Whitechapel-en aurkeztu zuen (1939ko urtarrila), faxismoaren aurkako borrokaren ikur gisa.

Hirugarren bidaietan, margolanak Atlantikoa gurutzatu zuen. Spanish Refugee Relief Campaign ekimenak sustaturik, 1939ko maiatzean, erakusketa bat jarri zen ikusgai



New Yorkeko galeria batean, eta handik, Los Angeles, San Francisco eta Chicagora joan zen. Ordurako, Gerra Zibila bukatua zen, Francok irabazita; beraz, ez zen inolako baldintzarik margolana espainiar herrira itzultzeko.

3- BERROGEI URTETIK GORA MOMA MUSEOAN (1939-1981)

Guernica eta lanaren marrazkiak Estatu Batuetan barna ibili ziren, Espainiar Errefuxiatuei Laguntzeko Kanpainak antolaturik (Spanish Refugee Relief Campaign), eta hura dei bat izan zen artearen eta politikaren arteko harremanei, artistek beren jarrera erakuts zezaten.

Hori ez zen oztopo izan New Yorkeko Museum of Modern Art Museoko (MoMA) zuzendari Alfred H. Barrek atzera begirako erakusketa handi bat aurkezteko: *Picasso, Forty Years of His Art*, hots, hura azterketa eta sistematizazio ariketa bat izan zen, ondoko urteetako arte, kritika eta historiografia picassiarra markatu zuena. Berrogei urte lehenago hasitako ibilbide baten gorengo unea zela esaten zen *Guernica* lanaz. Erakusketak sekulako arrakasta izan zuen, hirurogei milatik gora lagunek ikusi baitzuten, eta hedabideetan oihartzun handia izan zuen.

Barren asmoa zen MoMA artearen erreferentzia izatea mundu osoan, Picassoren munduko bildumarik handiena bertan ikusgai jarrita; bada, Europa gerran zegoela baliatuta, *Guernica* museoan uzteko aldarria egin zuen, eta horrela, lana New Yorken geratu zen.

Urteak joan urteak etorri, Espainia frankismoaren uztarpean zegoen bitartean, Picassok esan zuen margolanak MoMAn iraungo zuela, espainiar herriak askatasunak berreskuratu arte.

BIRAN ESTATU BATUETAN BARN

1940tik aurrera, *Guernicak* hainbat bidaia egin zituen MoMATik AEBko zenbait hiritara. Horrela, Barr zuzendariak museoaren autoritate pedagogikoaren eginkizuna finkatu zuen, eta horrez gain, margolana irudi eta gai bihurtu zuen, bai hedabideentzat bai kontsumo bideentzat. *Guernica* Harvardeko Unibertsitateko Fogg Museum-en jarri zen ikusgai 1941eko udazkenean, margolana sakralizatzeko eta haren esanahia birzehazteko prozesua agerian utzita. Izan ere, Bigarren Mundu Gerraren erdian, Picassoren lana bakearen ikur bihurtu zen.

Handik ia hogeita hamar urtera, 1970eko urtarrilean, Vietnamgo gerraren aurkako ekintzaile talde batek protesta ekintza bat egin zuen *Guernica* lanaren aurrean. Gerra giro hartan bertan, 1974ko otsailaren 28an, Art Workers' Coalition taldeko kide eta artista Tony Shafrazik margolanari egin zion eraso, azalean hauxe idatzita «kill lies all» (hil itzazue gezur guztiak).

Ondoko urteetan, MoMAk erakusketa asko antolatu zituen Picassori eskainiak, eta guztietan ere, *Guernica* jartzen zen ikusgai. 1980ko udan egindakoa da nabarmentzekoa; hura atzera begirako erakusketa handia izan zen, margolanari azken agurra emateko. Inoiz baino ikusmin eta arrakasta handiagoa eragin zuen.



MARGOLANAREN GAINENKO INTERPRETAZIOAK

Picasso Frantziako Alderdi Komunistan kide zen 1944ko urriaren hasieran —Paris askatu eta bi hilabetera—; *Guernicaren* hamargarren urtemuga ospatu zen, eta Juan Larreak monografia bat argitaratu zuen lanaren inguruan. Horrek guztiak lanaren gaineko interes handia eragin zuen, eta bereziki, Picassok berak lanaren sinbolismoaz emaniko azalpenen gainean.

MoMATik, Alfred H. Barrek argitasuna ekarri nahi izan zuen margolanaren esanahira, eta horretarako, 1947ko azaroaren 25ean, sinposium bat antolatu zuen, adituak eta margolanaren sorkuntzaren lekukoak elkartuta, hala nola Juan Larrea, Josep Lluís Sert eta Jacques Lipchitz eskultorea.

Larreak gain, hainbat egilek esan zuten *Guernican* iraganeko arte eraginak atzeman daitezkeela —labar-pinturak, beatoak eta pintura erromanikoak, Goya, Manet eta beste—, artearen historiari formen eta ikonografiaren genealogia bat sortuta.

1947ko urtarrilean, Ad Reinhardt artistaren biñeta grafikoa argitaratu zen: *How to look at a mural: Guernica*, hots, hura margolanari buruzko gida bat izan zen, satira grafikoa baliatuta, lanaren testuinguru historikoa, ikurren balioa eta ikur bakoitzaren esanahia azaltzeko: zuri-beltzaren erabilera, zaldiaren eta zezenaren arteko tentsioa, edo esku, buru eta beso mutilatuen indar adierazkorra. Azken buruan, kartel edo biñeta bat baino gehiago, *Guernica* haustura eta oreka artistiko eta politikoak berrantolatzeke garai baten laburpen baten gisakoa zen.

GUERNICA EUROPARA ITZULI ETA SÃO PAULORA JOAN ZENEOA

Gerra ondoren, mundua bi bloke handitan zatitu zen. Hura enfrontamendu bat izan zen, deklaraziorik gabea; horrela, makina bat mehatxu eta mugimendu taktiko izaten ziren, bloke bakoitzak bere eragin-eremuak zabaltzeko ahaleginean baitziharduen. Bi blokeetan eta mundu osoan, beldurra zen nagusi, ez ote zen gerra nuklear bat piztuko, ondorio ikaragarriak eraginen zituen gerra, alegia.

Picassok 1949an margoturiko usoa Bakezaleen Mundu Biltzarraren ikurra izan zen. Biltzarra Parisen egin zen, 1949an. Hura nazioartean zabaldu zen, baina kritikak ere izan ziren. Izan ere, Bakea eta Askatasuna izeneko frantses mugimendu antikomunistak kartel bat plazaratu zuen; afixan, Josef Stalinekin Picassoren usoa lotuta zeraman, maskota bat balitz bezala.

Picassoren obra eta figura eztabaidaren erdigunean zeuden. *Guernica* Milanera 1953an eraman ondoren eta São Pauloko II. Bienalean parte hartu eta gero (1953-1954), margolana 1955ean itzuli zen Europara, Parisko Apainketa Arteen Museoa eskaini zitzaion erakusketa antologikoaren karira. Erakusketa hori, gero, Munich, Kolonia eta Hanburgora joan zen. *Guernica* hiri horietan ikusgai jartzeak bi xede zituen: Picassoren lana eta figura artista konprometitu gisa zabaltzea, eta gerraren eta bonbardaketen oroitzapena gainditzeko eta berreraikuntzaren aldeko deia egitea. Ondoren, *Guernica* eta lanaren marrazkiak Bruselan, Amsterdamen eta Stockholmen



jarri ziren ikusgai. Hura bira luzearen bukaera izan zen, Europari buruzko ideia berri baten erakusgarri.

4- «AZKEN ERBESTERATUA» ITZULTZEKO NEGOZIAZIOAK

Espanian, *Guernica*, galdutako askatasunen ikurra zen. 1960ko hamarkadan, kanpaina xume bat egin zuten Unibertsitateak eta Gobernuak, margolanaren entrega eskatzeko, baina hori ez zetorren inola ere bat diktaduraren errealitatearekin.

Franco hil arte, ez zen ofizialki pausorik eman. Adolfo Suárezen gobernuak lehentasuna eman zion, eta oposizioaren babesia jaso zuen. Horretarako, bi arlotan lan egin zen: Espainiako askatasun eta demokrazia maila erakutsi nahi zen, eta argitu margolanaren jabetzaren gaia, Picassok lana espainiar herriari eman ziola frogatuta. Max Aubek Luis Araquistáini 1937ko maiatzaren 28an bidalitako gutunean jasota dago zenbat ordaindu zitzaion Picassori lanaren truke; beraz, gobernuak lana erosi izanaren frogagiria izan zitekeenez, gutuna agiri erabakigarrietako bat izan zen, MoMAk margolanaren lekualdaketa onar zezan.

Guernica 1981eko irailaren 10ean iritsi zen Espainiara, eta horrek sekulako ikusmina eragin zuen. Gobernuak esan zuen *Guernica* Madrilera iritsi izana Gerra Zibileko bi bandoen arteko adiskidetzaren seinalea zela, bai eta Trantsizioaren amaiera ere. Prentsak adierazi bezala, azken erbesteratua itzuli zen.

GUERNICA BUEN RETIROKO CASÓN ERAIKINEAN, MADRIL (1981-1992)

Hasieran, *Guernica* Casón eraikinean kokatu zen, hau da, Buen Retiro jauregiko dantza-aretoa izaniko gelan, 1814an hondatua zegoena, frantsesen inbasioaren ondotik. Zaharberritze lanak egin ondoren, Prado Museo nazionalari atxikitako museo-egoitza bat izan zen.

Margolana bildua garraiatu zuten hegazkinez, eta sekulako segurtasun neurrien artean. Kokaleku berrian ere segurtasun neurri zorrotzak ezarri ziren. Kristalezko ontzi blindatu baten barnean sartu zen, guardia zibilaren etengabeko begiradapean. Hura ezohiko ingurunea zen artelan batentzat, argazkilariek irudietan erakusten zuten bezalaxe; orain, urteak joandakoan, argazkiok Trantsizioaren hauskortasunaren erakusgarri dira, eta era berean, adierazten dute zeinen kautela handiz antolatu zen lanaren jendaurreko aurkezpena.

Guernica-Legado Picasso izenburuko erakusketan, margolanaz gain, hari loturiko berrogeita bost lanak jarri ziren ikusgai (denak osotasun baten zati baitira), eta arrakasta handia izan zuen, bisitariak milaka joan baitziren.

SOFIA ERREGINA MUSEOA: GUERNICA BER-HISTORIZATUA

Guernica eta hari lotutako lanak Buen Retiroko Casón-etik Sofia Erregina Arte Zentroaren Museo Nazionalera eramatearen kontua 1986an sartu zen agenda politikoan, arte zentro berria sortzearen ondorioz, eraikina erabat moldatu ondoren eta, 1988ko bukaeran, bertako bilduma planifikatu eta gero.



Picassoren lanak 1992ko uztailaren 26an, igandearekin, lekualdatu ziren. Aldi hartan, kontserbazio arloko arrazoiak zirela eta, margolana ez zen biribilkatu. *Guernica* museoko bigarren solairuan jarri zuten, toki berezian, eta aldameneko geletan, margolana prestatzeko marrazkiak eta mihiseak jarri ziren ikusgai, bai eta postkriptoak ere. 1996ko azaroan, margolana beste kokaleku batera eraman zuten, baina bigarren solairutik atera gabe.

Azken urteotan, *Guernica*ren inguruko geletako instalazioek, bai eta horren baitan aldi baterako ideiatutako erakusketek ere, arte-praktika jakin haien aniztasuna, tirabirak eta puntu komunak eskaini dituzte; gerrak, artearen krisiak eta hogeita hamarreko urteetako politikak zeharkaturik, arte-praktika haiek lagungarriak gertatu ziren eztabaida diziplinar berriak eragiteko hala maila nazionalean nola nazioartean.

5- PROTESTA-IKUR UNIBERTSALA

Guernica askatasunaren aldeko ikur unibertsala da, museotik kalera pasatu dena. Biztanleria zibilaren aurkako indarkeria dagoen lekuan agertzen da. Pixkanaka, margolana bakearen aldeko ikur bilakatu da, eta behin eta berriz erabili da instituzioez bestelako esparruetan, eta erabili ere arte esparruetatik kanpo: hau da, protesta giroan eta jendearen mobilizazioetan, batzuetan berez sortutakoak, bai eta geografia barreiatuetan ere (Vietnamgo gerraren aurkako protestetan hirurogeiko hamarkadan, Irakeko gerraren aurkako mobilizazioetan, eta gaur egun, Siriako gerraren kontra).

Margolanak askotariko kolektiboei egiten die dei: lanik erreproduzituena da Espainiako espetxeetan, galdutako askatasunaren oroigarri; era berean, propaganda antimilitaristak erabiltzen du gerraren izugarrikeriaz ohartarazteko, eta elkartasunerako deia da ezkerreko taldeen artean. Artistek ikuspuntu guztietatik interpretatu dute: ikono bisual gisa, propaganda politikorako tresna gisa eta totem artistiko gisa.

Atal honetan azaltzen da zer agertokitan erabili den *Guernica* bidegabekeriaren kontra eta bakearen alde ekiteko. Historiako margolana den heinean, alegoria unibertsala ere bada; horrenbestez, *Guernica* gauza da etengabe eguneratzeko eta bere indar kritikoa handitzeko.



Picasso. Guernicaren bidaia

2017ko urriaren 20tik 25era

Gernika-Lumo

Ordutegia ekainaren 21era arte:

Astelehenetik ostiralera, 12:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:00 – 14:00 eta 17:00 – 21:00

Bisita gidatuak: astelehenetik ostiralera, 19:00etan

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 12:00etan eta 19:00etan

Ikasleen bisitak:

Telefonoz hitzordua eskatuta: 902 906 666

Sarrera doan

"la Caixa" Gizarte Ekintzako Komunikazio Saila

Josué García: 934 046 151 / 638 146 330 / jgarcial@fundacionlacaixa.org

Andrés Gimeno: 934 046 137 / 638 546 679 / agimeno@fundacionlacaixa.org

Prensa areto multimedia: <http://prensa.lacaixa.es/obrasocial>

 [@FundlaCaixa](https://twitter.com/FundlaCaixa) [@CaixaForum](https://twitter.com/CaixaForum) [#GuernicaCaixaForum](https://twitter.com/GuernicaCaixaForum)